

TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2015eko azaroa • 309. alea



Etorkizuna belaunaldi berrien esku

EUSKARAK
365
EGUN

Abenduak 13, eguna
Euskaltzaleen ospakizuna
plaza zaharrean
19:00etan Zubitik

Criado
Fruitategia Urdaitegia



Kalebarren, 12
Tel.: 943 75 12 41

TXURITXU GOZOTEGIA
Tel. 943 75 24 43

Pastel eta gosari goxuenak dastatzeko lekuri onena
Etxera banaketak egiten dira



TXOKO KAFETEGIA

Elkartzen gaituen txokoa

Kalebarreneko kale kantoian Tel. 943 75 17 89

ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA

arrunta dekoraziokoa industriala

Tel. 943 75 13 24
Mug. 652 77 70 30



TRISKEL

Herboristeria Parafarmazia Dietetika

Ordutegia
Astelohenetik ostiralera: 09:00-13:30 / 16:30-20:30
Larunbatetan: 10:00-13:00
Telefona: 943 50 78 50

Eguerditan rabak, txanpiak, olagarra, patata minak eta kroketak (leixera eramateko ere bai)

Gauean ogitartekoak eta plater konbinatuak

EDURTZA kafelegia

Santa Ana, 12
TEL. 943 75 13 83



5.000 baietz!

.EUS komunitateak erronka berria du: 5.000 domeinuen langa gainditzea. Anima zaitetz eta sortu zure .EUS domeinu-izena!

Abenduan, .EUS domeinua 9.95ean denontzat
www.domeinuak.eus




Murrizte kanpaina

Poltsa berrerabilgarria edo tupperra erabiltzen dutenen artean hileroko 25€ko bi erosketa sari zozketatuko dira

SORALUZeko UDALA **ALKARREKIN soraluze eginez**

Irabazleak:

Lori Caballero M^o Isabel Altuna




Euskalzaletasunaren alde:



Abenduak 3, Euskararen Eguna

Erabizi da Euskal Herriko Euskaltzaleen Topaguneak aurtengo Euskararen Egunerako aukeratu duen leloa. Plaza Zaharrean herriko euskaltzaleekin egingo dugun ospakizunean irakurriko dugu manifestua:

Erabili, bizi, erabizi



Erabiziteza da hitz egin, berba egin, solastu, mintzatzea etxetik plazara eta plazatik etxera eraman eta ekartzea sentitzen dudana eta sentitzen dudana moduan esatea

Erabiziteza da sentitu, pentsatu, ekitea; batez ere, egitea eta maite zaitut, gorroto haut, tximeleta, astazakil, kikara edo maleruski esatea xedapen gehigarri bat idatzi eta emendakina aurkeztea alkateari euskaraz hitz egitea, eta alkateak guri euskaraz mintzatzea

Erabiziteza da iratzargailuko irratian "egun on, goizeko zazpiak dira" entzutea *bonjour, buenos días, diam nga fanan, good morning, bos días, bon día, allin p'unchay...* bati "egun on zuri ere" erantzutea "nire bilobarekin hitz egiteko praktikatzan ari naiz" azaltzea nahi izan, izan, ekitea

Erabiziteza da elkartzea, batzea, biltzea, topatzea eta batera ekitea mintzalagun, berbalagun, solaslagun, mintzakide, solaskide, bidelagun edo bidelari izatea "arratsalde on, kafesne bat nahi nuke" eskatzea eta dutxan "loretxoa" edo "hil da jainkoa" abestea

Erabiziteza da "ikasten ari naiz, hitz egin poliki, mesedez" esatea akatsekin (akatzekin edo akatzekin edo falloekin) bada ere, aritzea egitea, eragitea, ahalegintzea, saiatzea; lotsarik gabe, beldur barik, konplexurik gabe ausartzea eta saiatzen denari "lasai, ondo ari zara", "animo, bai, ulertzen da", "zorionak, asko aurreratu duzu" esatea

Erabiziteza da herriko toki-aldizkaria irakurtzea, agerkari digitalean idaztea twitterren txio batean #hitzmoloia aukeratzea, wikipedian artikulua bat idaztea eta .eus domeinua erabiltzea

Erabiziteza da plazara irten eta kalea gure egitea herriko euskaltzaleekin batera antolatu eta herri euskalduna eraikitzea

Erabiziteza da aldarrikatzea, sensibiltzatzea, eraikitzea, gozatzea, jolastea, motibatzea, kexatzea, txalotzea, arduraz jokatzeko, adostea,...

Erabiziteza da 365 egunetan -dun, -zale, -gile izatea; euskaldun, euskaltzale, eragile izatea

Egitaraua



ABENDUAK 3, EGUENA, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

19:00etan **Euskaltzaleen soka dantza**
Zubitik plaza zaharrera.
Ostean, **ospakizuna** elkarrekin



"Gure sorlekuaren bila"
Euskaraz grabatutako lehen filma.
21:00etan, Antzokian.



ABENDUAK 4, BARIXAKUA

"Erdaldun berrien kluba"
Antzezlana.
22:15ean, Antzokian.

Antolatzaileak: Hizkuntza politika batzordea eta Pil-Pilean Euskara Elkarteak.

1

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariaren esanena eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarteak. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitatea: Gaizka Azkarate Diseinua: Iñigo Urribetabarria Azala: Eñaut Aiarzaquena
Maketazioa: Oier Larreategi Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskaraz bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



SORALUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gutunak

Mesedetako Aurtengo gaztaina erriak zeuendako

egoitza

Azaruak 14, goizeko hamarrak, danok urduri, ... eguraldi ona eta bagoiaz danok azokia ikustera. Badatoz senide eta boluntarixuak. Txaketak jantzi eta hasi gara egoitzatik urtetzen. Danok ilaran gare, igogailuaren zain. Danok ilaran goiaz kalian Aurrera, azokara heldu arte. Atzetik bultzaka senide edo boluntarixuak. Batzuk ez dittut ezagutuko igual baina laster dittut lagun.

Ailegatu gara azokara: ze barazki, ze gauza, ze animalia, ... Bazkaltzeko ogixa eta gaztaia erosi dogu bertan. Zenbat jende ezagun, bata agurtu, bestia agurtu... Dana ikusi ostian, ezin talua jan barik gelditu indarrak hartzeko, eztarria busti eta poliki poliki egoitzara bidian berriz.

Heldu gara etxera, txaketak kendu, eta gertu gare bazkaltzeko; geuk be baba-jana. Baina bazkal aurretik eskerrak emon dotsegu gurekin ibili diran senide edo boluntarixueri. Euren laguntzari esker, herrixan hain maite dogun egunaz gozatzeko aukeria izan dogu eta. Aurtengo gaztaina erriak zeuendako.

Soraluzeko Espero dugun eguna

Sare

Kaixo Sebas.

Berriz ere gainean dugu zure urtebetetzea ospatzeko eguna.

Azaroaren 27an beteko dituzu 72 urte.

Iparraldea, Nikaragua, Venezuela, Espainia... hainbat toki "ikusi eta ezagutu" dituzu, aspaldi hartu zenuen erabakiaren ostean.

Berba labur hauek baliatu nahiko genituzke zurekiko elkartasuna adierazteko. Aurten ez bada, datorren urtean, gure herrikide eta zure emazte den Arantxi eta zurekin batera, plaentxiatarron artean -zuk elgoibartar izateari laga barik-, ospatzea espero dugun eguna. Hori da gure amets eta itxaropena.

Guk lanean jarraituko dugu legeak berak agintzen duena bete dadin, 70 urte baino gehiago izanda, Asturiasgo kartzelako hesietatik kalera atera zaitezten. Zorionak!

Korner Korner Morea jaio da

Morea

Soraluzen zorioneko gare, Korner Morea talde feminista jaio berri da. Orain arte ametsa izan dana, jadanik egi bihurtu da. Gogoz eta indartsu gatoz herrixan ikusten dittugun zenbait hutsune betetzera.

Sexismoa, transfobia, lesbofobia, homofobia eta adierazpen horiek guztiak identifikatu eta sunsitzeko borrokatuko dogu. Baina gure helburua ez da borroka egitea soilik edo, hobeto esanda, borrokan ari garan bittartian barre, zirikatu, dantza eta, batez ere, bizi egin nahi dogu.

Barre, hasarre egotiaz nazkatu garalako eta gure umore guztiakin ekingo dogulako. Zirikatu, lo edo erdi lo dagan gizarte honetan biharrezkua dalako xaxatzia. Dantza, iraultza bat dantza barik ez dalako benetako iraultza bat. Eta bizi, gure bizitza bizitzia nahi dogulako, baina ezarritako eredu eta arauak hautsiz, gure bidea aske eta modu automoan eginez.

Gure asmua zuengana heltzia da, baina zuek guregana bebai, danon biharra dakagulako. Beraz, gonbidapena luzatzen dotsuegu antolatuko dittugun ekintzetan parte hartzeko eta elkarlanian KORNER MORETIK HETEROPATRIARKATUARI GOLAK SARTZEKO.

Soraluze moreago eta ederrago bat merezi dogulako!

Bittartetik



Miguel
Borinaga

PlaentxiaMET jaio da

Txikitatik izan dut gauzen zergatia ulertu eta azaltzeko jakinmina eta uni-bertsitatean fisika ikastea aukera ezin hobea iruditu zitzaidan jakinmin hura asetzeko. Hala ere, fisika ikastera benetan bultzatu ninduen meteorologiarekiko zaletasuna izan zen. Izan ere, meteorologia atmosferaren fisika da hein handi batean. Karrerak, hala ere, materialen fisikan lan egitera bideratu ninduen eta eguraldiaren kontuak hobby moduan mantentzea erabaki nuen.

Tamalez, zerbait aukeratzean baztertu-takoak sarritan arantza txiki bat uzten du barruan sartuta. Plaentxia.eu-en plaentxiaMET bloga sortzeko aukera eskaini zidatenean arantza hori ateratzeko aukera paregabea ikusi nuen. Dudarik barik, baiezkoa eman nuen. Aurretik ere buruan mota honetako blog bat zabaltzeari pare bat buelta emana nintzen baina plaentxia.eu moduko webgune batean idazteko aukera izateak proiektu hau euskaraz burutzeko azken bultzada eman zidan. Gure hizkuntzan era guztietako edukiei tarte bat ematearekin batera, idatzitakoa ahalik eta jende gehienari helarazteko duen indarraren balioa kalkula ezina da.

Gauzak honela, proiektuari hasiera emateko asteburuko iragarpena idatziko dut eguenero, beti ere dibulgazioari tarte bat emanez. PlaentxiaMET jaio besterik ez da egin, ordea, eta egokitzapenak egingo dizkiogu; beti ere, hobetzeko asmoz. Prozesu horretan iradokizunak ongietorriak izango dira; hortaz, anima zaitezte blogean komentarioak egitera!

 Kiru Muntalak 943 76 99 85 kirumuntalak@yahoo.es www.kmdesign.es	Pol. Amillaga 5 BERGARA Tel. 943 76 99 85	<input checked="" type="checkbox"/> Diseinu eta Fabrikazio lanak	Sukaldeak Horma-armairuak Logelak Zoruak Ateak...
		<input checked="" type="checkbox"/> Arotzeria	lanak oro har <input checked="" type="checkbox"/> Instalazioak

“Autodefentsarako teknika errealak erakusten ahalegintzen gara”

Ixa Rodriguez



Ixa Rodriguez.

Ixak Rodriguezek emakumeendako autodefentsa ikastaroa eskaini berri du losu Lopetegi entrenatzailearekin batera. Lopabox taldeak herrian ematen dituen boxeoko eskolak eta abenduaren 11rako antolatutako emakumezkoen boxeoko gaua ere berbetagai izan dugu.

Zer irakasten duzue ikastaroan?

Defenditzeko teknika errealak erakusten ahalegintzen gara. Ez da berdina labanaz, pistolaz edo ezer gabe datorrenaren eraso. Eraso mota bakoitzak bere defentsa zehatza behar du. Leku itxiren batean gertatuz gero, bertatik ateratzeko aukerak zela aprobetxatu ere azaltzen dugu: atea zela bota, zein modutara apurtu kristala...

“Garrantzitsuena zein garen eta noraino hel gaitzkeen jakitea da”

Noraino da erreal autodefentsarako aukera?

Garrantzitsuena zein garen eta noraino hel gaitzkeen jakitea da. Oso seguru egon behar dugu egin behar dugunaz. Gizonezkoa eraso egitera datorrenean bere onetik irtenda dator, eta guk, gure berrogeitamar kilotoekin aukera bakarra izango dugu eraso saihesteko. Golpea min emateko lekuan eman eta korrika ihes egin behar dugu. Alde psikologikoa oso garrantzitsua da.

Zela lantzen duzue alde psikologikoa?

Ikastaroan izena ematen duten gehienak emakume gazteak izaten dira, 25-40

urte bitartekoak, umeak dituztenak asko. Noizbait erasoren bat jasoko duten beldur dira. Guk horretaz berba egiten dugu ikastaroa hasi aurretik eta ikastaroaren amaieran gutxieneko irizpide batzuk izan ditzaten ahalegintzen gara.

“Lopabox klubean 170 lagun gabilza eta gehiengo emakumezkoa da”

Bada denbora bat herrian boxeoko eskolak ematen hasi zinela. Zela doa?

Oso ondo. 30 bat lagun batzen gara. Herriko jendearekin batera inguruko herrietakoak ere etortzen dira: Oñati, Arrasate, Bergara, Elgoibar, Zaldibar... Billboko Lopabox-en 170 bat gara eta azkenaldian gehienak emakumeak, bai entrenatzen eta bai konpetitzen. Emakumeak gero eta gehiago gara. Ni hasi nintzenean oso gutxi ginen. Horregatik joan nintzen Bilbora.

Zergatik gorakada hori?

Boxeoko eskolatan asko zaintzen da emakumeenganako errespetua eta emakumeon artean ere oso giro ona sortzen da. Ondo pasatzearekin batera osasuna hobetzen da. Atentzioa, fisikoa, disziplina... lantzen dira eta horren onurak sentitzen hasten zarenean sekulakoa da.

Ez da kanpotik pentsatu litekeen bezain arriskutsua beraz?

Ez, oso segurua da. Neri sarritan galdetzen didate ea zela daukadan sudurra apurtu gabe. Nik erantzuten diet jartzen ditugun

babes neurriekin horrelakorik gertatzea ezinezkoa dela. Gureak ez dauka zerikusirik boxeoko profesionalarekin.

Zer moduz zabilza konpetizioan?

Espainiako txapelketa irabazi dut aurten eta hurrengo konbatea abenduaren 11n jokatuko dut herrian, Maria de la Torre-aren aurka. Maria hemezortzi urterekin hasi zen konbatitzen eta orain berrogei ditu. Espainiako txapelketa izan da kickboxing-ean.

“Abenduaren 11n Espainiako kick-boxing-eko txapelketa irabazi dut borrokan”

Gainerakoan zer ikusi ahal izango dugu aurtengo boxeoko gauan?

Batez ere emakumezkoen gaua izango da. Denera zazpi konbate izango dira, sei nesken artekoak eta bat mutilena. Bi ordu inguruko iraupena izango du. Joan zen urtean ia 400 pertsona batu ginen eta pentsatzen dut aurten ere etorriko dela jendea boxeoko gauetara.

Gainera euskaraz izango da.

Bai. Gaueko aurkezpen osoa euskaraz egingo du herriko aurkezle batek. Eskolak ematen ditudanean ere ahalegintzen naiz euskara erabiltzen. Hori oso garbi daukat. Euskaltegian nabil euskara ikasten eta datorren urtean berriz barnetegira joatea da nere asmoa. Denborarekin euskaraz bizi nahi nuke.



Emakumeak jazartzen dituzten gizonezkoei aurre egiteko deia



Plazako elkarretaratzea.

Ehun eta hogeita lagunetik gora batu ziren joan zen eguaztenean matxismoaren aurka plazan egin zen elkarretaratzean. Adin guztietako emakume eta gizonezkoak batu ziren; batez ere, emakumeak eta asko gazteak. "Indarkeria matxistak baititu milaka aurpegi" lema aukeratu zuten Emakumeekiko Indarkeriaren Aurkako Egunean kalera ateratzeko.

Elkarretaratzearen amaieran, Olatz Seba-lek hartu zuen hitza: "Aurten hil duten emakume bakoitzeko zapata bat jarri nahi genuen baina ezinezkoa izan da, hildako emakumeen zerrenda luzeegia delako. Emakumeak erasotzen, jazartzen eta hiltzen gaituzten gizonezkoak gure artean bizi dira eta aurre egin behar diegu, denon ardura da gizonezko erasotzaileei aurre egitea" adierazi zuen, Korner Morea talde feministako kideak.

Korner Morea talde feminista

Azaroaren 25aren inguruan eman du eza-gutzera bere burua Korner Moreak, herriari sortu berri den talde feministak. "Gogoz eta indartsu" abiatu dute bidea eta sexismoaren, transfobiaren, lesbofobia eta homofobiaren aurka borrokatu nahi dutela adierazi dute. Borroka hori, "barre eginez, zirikatuz, dantzatuz eta, batez ere, biziz" egin nahi dute.

Bigarren eskuko azoka

Alkarrekinen Jasangarritasun taldeak eta Udalak bigarren eskuko azoka antolatuko dute abenduaren 12an, zapatuan, Plaza Zaharrean. Bertan, bigarren eskuko materiala saldu eta trukatzeko aukera izango da. Parte hartu nahi izanez gero, abenduaren 8a baino lehen jakinarazi behar da ondorengo helbide elektronikora idatzita: ingurumena.soraluzekoudala@gmail.com, edota ondorengo telefonora deituta: 627154132.



Gure Esku Dagoren inkesta

Urriaren eta azaroaren zehar Soraluzeko Gure Esku Dagok 70 herritar baino gehiagori galdetu die iritzia etorkizunean mugimenduak izan beharreko egituraketa eta eman beharreko pausoen inguruan. Azaroaren 21ean Gasteizen egindako batzarrean, zuzendaritza aukeratu zuten eta mugimenduaren oinarriak zehazten dituen txostena adostu zuten. Tokian tokiko galdeketa adostu eta egitea erabaki dute eta 2016an galdeketa egingo dute Goierriko 22 herritan eta Bizkaiko Dima eta Izpazter herrietan.

FotoNotizia



Enegarren istripua Maltzagara bidean

Azaroaren 22an bi autok elkar jo zuten Embalajes Ansola lantegia zenaren parean eta bost lagun ospitalera eraman behar izan zituzten zauri arinekin. Bi urtean Maltzagara bidean gertatu den laugarren istripua izan da (hiru alditan autoak ibaira jausi dira). Horietako istripu bat Mendiola industrialderako sarbidean gertatu da istripu bat eta Ansola lantegiaren pareko errepide zatietan beste hirurak. Orain dela hilabete batzuk zoruko marra zuriak egokitu zituzten, baina badirudi arazoak bere horretan dirauela.



Etxabe Harategia

Euskal txabalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

Nerea Gabilondo
Telf.: 943 75 12 63

negabi
ileapaindegia

Santa Ana kalea, 9
SORALUZE

Zutarria Ezozin

Udalak Arribiribilletako zutarriaren erreplika ezarri du Ezoziko futbol zelaiaren ondoan, "Dolmenen Ibilbidea" seinalezatzen duen informazio-panelarekin batera. Alkarrekin Mendi eta Ibaia lan-taldeak adostu zuen berau bertan jartzea, bertan hasten baita -Legarda base-rirako bidean- PR-GI 94 Dolmenen ibilbidea. Udalak adierazi du gero eta jende gehiago datorrela mendigainera bisitan eta garrantzitsua dela erreferentziazko puntua ezartzea.



Misio Taldeak 1.771 euro batu ditu Haitira bidaltzeko

Misio taldeak 1.771 euro batu zituen Gaztañerre azoka egunean etxean egindako gozoak salduta. Diru hori Haitira bidaliko dute, azaroko janari bilketan jasotako elikagaiekin batera. Gabonetan berriz, urtero moduan, boluntarioek jantzitako panpinak salduko dituzte tonbolan.



Argazkia: Nerea Isasti.

Bizikaleren zozketa

Bizikalek 2.000 euroko balioa duen oterra zozketatuko du abenduaren 18an, 20:00etan, Plaza Zaharrea. Zenbaki saritua duenak zozketa egiten den momentuan bertan agertu beharko du saria jaso ahal izateko.

Alkarrekinen batzarra abenduaren 12an

Alkarrekinen Soraluze Eginez dinamikaren batzarra abenduaren 12an egingo dela jakinarazi du udalak. Batzarrean, Alkarrekinen baitan diharduten lan-taldeek - Herri identitatea, Ibaia eta mendia, Jasangarritasuna, Jarduera fisikoa... - urtean zehar egin dutenaren eta datorren urtean egitea proposatzen dutenaren berri emango dute. Batzarra goizeko 10:00etan hasiko da antzokian; ostean, frontoira aldatuko dira eta han lan talde bakoitzak modu errotatiboan bere jardunaren inguruko azalpenak emango ditu.

Ertzantzari sinadurak

Bizikalek 1257 herritarren sinadurak batu ditu Ertzantzari gauetan herriaren zaintza areagotzeko eskatuz. Udalak, alkaterean bitartez, Bergarako Ertzantzaren arduradunari entregatu dizkio sinadurak. Ertzain etxetik jakinarazi dute eskaera kontutan hartuko dutela eta "neurriak hartuko dituztela". Berebiziko garrantzia eman diote delitu bat gertatzen den kasuetan salaketa ipintzeari.

2015ean zehar guztira 18 delitu salatu dira herrian: 5 lapurreta etxebizitzetan,



lazio alkarrekinen batzarra. Argazkia: Fernan Oregi.

9 toki itxietan (taberna, denda, garaje eta abarretan), 2 enpresetan, 1 biolentzia edo beldurra eraginez eta askatasun sexualaren aurkako delitu 1 ere gertatu da (erasotzailea atxilotu dute).

Alokairua bultzatzeko hitzarmena

Udalak hutsik dauden etxebizitzak merkaturatu eta beharizana duten pertsonen bideratzea sustatzeko hitzarmena sinatu du Alokabiderek. Udalak herritarrei informazioa helarazi eta urtean behin promozio-kanpaina egiteko konpromisoa hartu du.

Plaentxia.eus-ek bisita kopurua bikoiztu du ia zertik hona

Iaz Plaentxia.com-ek 34.000 bisita izan zituen urtariletik abendura bitartean eta aurtengo dagoeneko 68.000 bisita izan ditu (%95 gehiago). Batz bestea, webguneak 300-400 bisita izaten ditu egunero, abuztuan izan ezik. Horietatik ia laurdenak mugikorra erabiltzen du webgunean sartzeko (%22a). Aktualitatearen jarraipen zabalagoa eta ikus-entzutekoen eskaintza handitzeak, eta dagoeneko 40 blog baino gehiago dituen komunitatearen jardunak eragin dute igoera hori. Datorren urtean berrikuntza eta hobekuntza gehiago egingo zaizkio webguneari, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko. Informazioa euskaraz eta kalitatez bideratzea da Pil-pileanen eta komunitatean parte hartzen duten taldeen helburua.

IZAGUIRRE
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11

GAZTETXEA “BERREKITEN”

Etorkizuna belaunaldi berrien esku

Gazte asanbladaren etorkizuneko jarduna belaunaldi gazteagoen esku lagatzeko prozesua abiatu dute Gaztetzean.

Gazte asanbladan “haize berriak behar zirela konturatuta” gazte asanbladakoek belaunaldi berrien parte hartzea bideratzeko prozesua garatzeari ekin zioten. Uztailean hasi ziren gazteagoekin eta herriko taldeekin harremanak landu eta iritziak jasotzen: “Gaztetzearen inguruan zelako iritzia duten jakin nahi izan dugu, hori jakinda etorkizunean euren parte hartzea zela bideratu dezakegun asmatzeko”. Oso garbi dute Gaztetzeari etorkizunean egingo duen bidea datozen belaunaldietako gazteek erabaki beharko dutela: “guk gure bidea egin dugu, gure hutsune eta lorpenekin, baina geurea. Orain eurei tokatzen zaie euren bidea egitea, hala nahi baldin badute, behintzat”.



Prozesuan parte hartzen diharduten gazteetako batzuk.

“Gaztetzeari haize berriak behar zirela konturatu ginen”

Iritzi-trukeak bideratu ostean aurtengo hamabostaldi kulturala elkarlanean antolatzea izango da lehenengo praktikoa, orain arte ere indako hazitik zer erretzen den ikusteko aukera emango duena.

Berrikuntza eta elkarlana

Gaztetzeari jarduna berri eta zabaltzeko ahalegina ez da azken hila-beteotakoa bakarrik. Azken urteotan Gaztetzeari herritarrengana hurreratzeko hainbat berrikuntza bideratu dituzte: “beharbada jendearen begietara heldu dira goiko pisuan egin ditugun obraketa, batez ere, barra zabaltzea. Berri dugu erortzen zegoen sabaia eta goiko terraza, jarri dira argi berriak eta mural berriak ere margotu ditugu”. Komunikazioan ere egin dute ahalegina: “ekitaldiak eta egiten duguna argazki eta bideoetan jasotzen dugu, gero Plaentzia.eus-en dugun blogaren bitartez edo sare sozialetan zabaltzeko. Gaur egun, hori da jende gaz-

tearengana eta ez hain gaztearengana heltzeko bide garrantzitsuenetako bat, aurrez aurrekoaren osagarri, noski”.

Ekimenei dagokionez, hainbait ekimen berri jarri dituzte martxan azken urteotan: tripa-festa beganoa, Gabonetako hamabostaldi kulturala, Plazatik Gaztetzeari bertso txapelketa, jai kontrartistikoa, jai-egitaraua jaietan eta Gazteñerretan, tertuliak, gogoetak, kultur-programazioa... Herriko hainbat taldek ere erabiltzen du Gaztetzeari: Bidehori kontsumo-taldeak, musika-eskolak, Sabin askatu plataformak, zumbako taldeak... Galtzagorri jai-batzordearekin eta Kukumixio aisialdi-taldeenekin elkarlana, berriz, gero eta estuagoa da.

“Orain eurei tokatzen zaie euren bidea egitea, hala nahi baldin badute, behintzat”

Bestalde, gazte asanbladak elkarte moduan egituratu berri du bere burua, oga-

sunak bere jardunarekin jarraitu ahal izateko baldintza moduan egitura juridikoa izatea ezarri eta gero.

“Gazte asanbladak elkarte moduan egituratu berri du bere burua, ogasunak eskatuta”

Autogestiorako baliabideak

Gazte asanbladak autoeraketaren bidea landu du urte hauetan guztietan eta bere jarduna garatu ahal izateko zenbait baliabide propio ditu orain: barra, tablata, argiteria, soinu-ekipoa, proiektorea, jan-tresna zerbitzua, rokodromoa, umeendako eta helduendako jolasak, serigrafia egiteko materiala, lanerako bulegoa ordenagailu eta inpresorekin... Urteetan lortutako baliabide teknikoaren multzo horri esker eta belaunaldiz belaunaldi bertan diharduten gazte konprometuei esker lortu du Gaztetzeari bere jarduna era beregain batean garatu ahal izatea.

IBILBIDEA TRANSMITITZEKO BIDEOA

Soraluzeko Gaztetxea Euskal Herriko gaztetxerik zaharrenetakoa da. 70. hamarkadara arte Luistarren edo gazte kristauen lokala izan zen; gerora, poliki-poliki elizarekiko loturak eteten eta gune autonomo bihurtzen joan zen. Gaztetxea herriko eragile kultural eta sozialik garrantzitsuenetakoa da eta izan da sortu zenetik. Garaian garaiko egoera sozial, politiko eta kulturalaren ezaugarriak bereganatu izan ditu: punk musikaren inguruko mugimendua, joera politiko libertarioak eta abertzaleak, euskalzaletasuna... Arau sozialekiko inkonformismoa eta bere jarduna autogestioaren bitartez modu autonomoan bideratzeko grina etengabeak izan dira bide horretan.



Ibilbidea horren berri datozen belaunaldiei transmititzearen garrantziaz jabetuta, gazte asanbladak 70. hamarkadatik hasi eta Gaztetxearen gaur egunera arteko historia jasotzen duen bideoa osatzen dihardu, garai ezberdinetako argazki eta bideo zatiekin, eta protagonista izan ziren zenbait partaideren testigantzekin osatuko dutena, Gabonetako hamabostaldi kulturalaren barruan proiektatzeko.

Gaztetxia Juventudes Gonzaga

El centro. Lokal bat, eraikin bat, espazio bat. Espazio bat, zeinetan, jendiak topo egiten daberen, kotillatzen dan, denbora pasatzen dan, kafia hartzen dan, egunkarixa irakurtzen dan, futbolinian jolasten dan eta mozkortzen garan. Erakin bat, nun, dantzatzen dan, litgatzen dan (ez dantzatu beste), txorua egiten dan, abesten dan, gaba goiz bihurtzen dan.

Lokal bat zeinetan, harreman batzuk sortzen diran, elkarlanian jarduten dan eta, barrurako zein herrirako, ideiak eta proposamenak eskeintzen diran.

El Centro bat, nun, esperimentatu egiten dan, aurrez geneuzkan uste batzuk zalantzan jartzen dittugun eta, parte hartzen dabenen iritzixa entzun eta errespetatzen ahalegintzen dan.



Juventudes Gonzaga bat, zeinetan, ez daukazu bestiak bezelakua izan biharrik, nahi ez dozulako!, zure sentitzen dozun, eta danona dan.

Gaztetxe bat hori al dan? Gure erabileran, horretan ahalegindu gara. Batez be, darabilenak erabaki deixala zer, eta zela izango dan. Guretako polita izan da, merezi dau proba egittiak; gehixaon artian egin ezker, gehixaontzat izango da erakargarri. Danon artian berriketan, berrekin. Zatozte!


Gazteagoen iritzizak



Maite Garmendia

Orain dela urte batzuk ez ginen gaztetxera hurbiltzen, jaietan bakarrik edo kontzerturen bat zegoenean. Gaur egun, gero eta gehiago joaten gara: garagardo batzuk hartzera, pintxo-potera, futbolinean jolastera, kontzertuetara...

Bertako kide batzuk ezagutzen ditut, iriak dira, beti daude laguntzeko gertu eta denok animatzen gaituzte eurekin parte hartzera. Prozesua modu askotara zabaldu dute gazte eta ez hain gazteen artean, baina uste dut herriko gazteei ez zaiela asko ardura, lokaletan daudelako. Danok zeoze jartzen badugu, denon artean prozesua aurrera eramateko gai izango gara.



Oier Larreategi

Gaztetxea nahiko ondo ikusten dut, jende gutxirekin baina gogoz. Hala ta guztiz ere beharrezkoa ikusten dut jende berriak parte hartzea, izan ere jende gazte askorik gabeko gune bati gehiago kostatzen zaio jende gaztearengana gerturatzea. Azken urteotako bukle hori alde batera lagatzeko aukera ona da martxan jarri den prozesu hau.

Azkenean, honekin ez du gaztetxiak bakarrik irabaziko, herriak ere irabaziko du. Gaztetxerik egongo ez balitz, hainbat arlotan beste inork beteko ez lukeen hutsune bat geldituko litzateke herrian.

AZAROKO ARGAZKIEN OINAK HIL HONETAN...



GAZTAÑERRE JENDETSUA Azokaren 20. edizioan jende asko ibili zela aipatu dute herritarrek eta hainbat ordezarrik. Armendiko Pilarrek esaterako lehenengo aldiz ikusi zuen azoka.



GAZTAÑERREKO AFARIA Hizkuntza eta jatorri askotako soraluzetarrek batera afaldu zuten Pil-pilean afarian. Postrean gaztainak eta euskal kantuak Domentxen gitarrak lagunduta.



80+ BAZKARIA Larogei urtetik gorako ehun aittitta-amama baino gehiago batu ziran ltxaropenak antolatutako bazkarian. Martina eta Martinek oroirari berezia jaso zuten.



MUSIKARI GAZTEAK Musikari gazteenek koreografia eta kantuz osatutako ikuskizun berezia eskaini zuten plazan, S. Zeziliaren omeneko kalejira amaitzeko. Jendeak gogotik txalotu zuten.



KANTU-PARRANDA Herriko kantuzale askok abesbatzaren ondoan bilatu zuten aterpea eta gozamina S. Zezilia egunaren bezperan kantu-parranda egiteko.




AUTODEFENTSA LANTZEN Hainbat emakumek parte hartu dute autodefentsa ikastaroan, gizonzko batengandik etor litekeen balizko erasoaren aurrean euren burua defenditzen ikasteko.



Motzean

Rascon bizkorrena Behobian

David Rasconek soraluzetarren arteko denborarik bizkorrena lortu zuen Behobian: 01:21:07. 571. sailkatu zen 15.000 korrikalariren artean. Donostiako maratonia 596. helmugaratu zen 03:07:16ko denborarekin.



Muñoz garaile Mendaron

Jokin Muñoz izan zen bizkorrena Mendaroko X.Alkortako igoeran 22:04ko denborarekin. Garaipena jaiotako berri duen alabari, Sarari, eskeini zion. Mikel Hernandezek 23:37 denbora eta Ander Ariznabarretak 30:74koa egin zuten.

Soraluzetarrak final-laurdenetan

Jon Gallastegi -Jon Heriz eta Jurgi Rascon-Joseba Etxeberria bikoteak Mutrikuko pala txapelketako final-laurdenetarako sailkatu dira. Biek irabazten badute elkarren kontra jardungo dute final-erdietan.



Eskuz binakako ohorezko maila galdu du Soraluzek

Aitor Atxotegi, Andoni Aldape eta Ibai Bolinagak hurrengo urtean eskuz binakako lehenengo mailan jokatu beharko dute aurtengo denboraldi goraberatsuan ostan maila galdu eta gero. Jeitsiera promozioa Azpeitiko Ilunpe taldearen kontra galdu zuten.

Boxeo gaua abenduaren 11an

Boxeo jaialdia 22:00etan hasiko da eta bi ordu inguruko iraupena izango du. Zazpi konbate jokatuko dira, horietatik sei emakumezkoen artekoak. Sarrerak aurrez erosi ahaliko dira 12 eurotan, Mendata tabernan eta 607332540 telefono zenbakira deituta (egunean bertan 15 euro). Gaueko borrokaldi nagusia Ixa Rodriguez Espainiako txapelkunaren eta Maria de la Torre Espainiako azpitxapelkunaren artekoa izango da. Aurkezle lanak losu Arriola herritarrak egingo ditu.



Futbolaz berriketan

Alana Berraondo (25) eta Daiana Ricco (26) kirol arloan egin dituzte ikasketak eta Mutrikuko futbol taldean dihardute.

Noiz hasi zineten futbolean?

A: 10 urterekin Eibarren.

D: 12 urterekin Bergaran.

Umetako ametsa?

A: Athleticen jokatzeara.

D: Nesken ligako lehen mailan jokatzeara.

Zein taldetan jardun duzue?

A: Eibar, Elgoibar, Santa Coloma de Gramanet, Soraluze eta Mutriku.

D: Bergara, Betels, Añorga, Sora eta Mutriku.

Momenturik gozoena?

A: Eibarrekin kadetetan liga irabazi genueneko.

D: Mutrikurekin Gipuzkoako txapelkun egin genueneko.

Posible ikusten duzue herrian berriz taldea sortzea?

A: Oso garbi daukat baietz eta taldea sortzeko borroka egingo dut.

D: Nire ustez zaila da herriko jokalariek askok kanpoan dihardutelako jokatzeko.

Bere garaian bizikidetzak ona izan zen?

A: Oso tratua ona jaso genuen zuzendaritza eta gainerako taldeetatik.

D: Berdin, oroitzen negatibo bakoira partidu guztiak domeketan zirela... (karkarkar)

Herritarren aldetik babesik izan zen?



Daiana eta Alana.

A: Handia, partiduak ikustera jende asko etortzen zen, bonbo eta guzti.

D: Gipuzkoako azpi txapelkun egin genueneko izugarria izan zen.

Zergatik dira entrenatzaile gehienak gizonetzkoak?

A: Ez gaituztelako gai ikusten, hobeto ikusia dago emakumeak gobernatuko dituen gizonetzko bat.

D: Federazioetik dator. Formakuntza hobe izan arren beti aukeratzen dute gizonetzkoak.

Nesken futbolaren etorkizuna nola ikusten duzue?

A: Emakume bat federazioan sartzen ez bada ez da ezer aldatuko.

D: Parekidetasuna lortu beharko litzateke baina oso zail ikusten dut.

*Elkarrizketa osoa plaentxia.eus webgunean**

Kontulan 
 aholkularitza

Errenta aitortpenak • Zerbitzu juridikoak • Administrazioa lanak • Trafikoko burokrasiak
 Lan-arloko aholkularitza • Enpresen konturak/diskuzioak • Kontabilitateak • etab...

Santa Ana 13 - 1. csk. 20590 Soraluze - Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

MENDIZABAL
 okindegia

Egurrezko labean egindako ogia

Kalobarren, 10
 Tel. 943 75 20 91

Baltegieta, 6
 Tel. 943 75 13 99



Euskarazko lehen filma



Hazparne, 1956. Ikusmira handiarekin estreinatu zen herriko zineman Euskal Herriari buruz euskaraz egindako dokumentala. Hurrengo hilabeteetan Iparraldeko herrietan, Parisen, San Franciscon edo eta Dakarren proiektatu zen arren, haren arrastoa misteriotsuki desagertu

eta denek ahaztu egin zuten laster. Hirurogei urte beranduago, Josu Martinez zinemagilea haren bila hasi zen eta aurkitu egin du. "Gure sorlekuaren bila" euskaraz grabatutako lehen filma da eta egueanean proiektatuko da antzokian, Ostegunetako pelikulak zikloaren barruan. Emanaldia gaueko 21:00etan hasiko da.

"Erdaldun berrien kluba" antzezlana

Barikuan, gaueko 22:15ean hasita "Erdaldun berrien kluba" antzezlana eskainiko dute antzokian. Euskaraz pentsatzen, sentitzen eta ahal duen guztietan euskaraz diharduen neska eskoriatzar baten istorioa da. Eguneroko bizimoduan sortzen zaizkion arazoak eta gertaera bitxiak erakusten ditu, edozein euskalduni gerta dakizkiokeenak.

Loiola Madera EH Sukarraren diskoan

EH Sukarrak disko berria kaleratu du, Azken gezia, eta Loiola Madera bateirajole soraluzetarrak parte hartu du grabazioan. Loiolak lau urte daramatza talde eibartarrarekin batera jotzen eta bere lehenengo diskoa du. Azaroan aurkeztu zuten Bilbon eta dagoeneko zuzenekoak eskaintzen hasita daude. Diskoa abenduaren 4tik 8ra bitartean egingo den Durangoko azokan jarriko dute salgai, Oihuka disketxearen estanean.



Sensaciones, modeloen argazkiak



Erakusketako argazkietako bat.

Modeluak dira Kontrargik ikusgai jarri duen *Sensaciones* argazki-erakusketaren gai nagusia. Jose Venegas argazkilari legazpiarraren berrogei argazki dira, hainbat modeluri ateratakoak, berak harreta handiz aukeratutako eszenarioetan. Venegasek hogeitau urte baino gehiago daramatza argazkilaritza munduan, "afizionatu eta autodidakta" moduan. Natura eta kirol argazkilaritza jorratu zituen lehenengo eta gaur egun modeloak fotografatzen dihardu. Horretan garatzen du bere sormena. Erakusketa zabalik dago abenduaren 2tik eta abenduaren 30era bitartean ikusi ahal izango da.

Argazki-rallya

Eguraldi txarra egin arren, hogeita bederatzigarazkilarik parte hartu zuten azaroaren 22an egin zen argazki XXVIII. rallyan. Abenduan jakinaraziko dute emaitza eta sari banaketa ere egingo dute.

Krabelin, margolarien harrobia

Krabelin pintura-eskolako ikasleek margotutako berrogeita sei koadro ikusgai izan dira asteotan erakusketa gelan. Paisaia errealistak, irudi abstraktuak... margolari bakoitzak bere estiloan eta erritmoan egindako margolanak ikusi ahal izan ditugu. Gaur egun, berrogeita bederatzigarazkilarik Ana Pinillak zuzentzen duen eskolak gehienak gaztetxoak. Dibujo artistikoa, akuarela, akrilikoa eta oleoa lantzen dituzte, astean ordubetez. Astelehen, martitzen eta eguazten arratsaldetan batzen dira margotzen ikasi eta norberarendako edo oparitzeko izango diren margolanak ontzeko.



sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

mug. 635 71 34 08



Zorion agurrak



Haizea
Azaroaren 19an 8 urte
Zorionak maitxia. Ilargiraino
eta bueltan maite zaitugu.
Etxekoan partez.



Nahia Mendia Hernaez
Azaroan 23an 9 urte.
Zorionak polittori! Patxo
haundi bat etxekuen eta
batez be Eukenen partez.



Jone eta Tio Jose
Abenduaren 9xan eta 10ian urtiak betetzen
dittuzuelako. Zorionak pareja eta muxu potolo
asko etxeko guztion partez!



Manex eta Miren Osinaga
Azaroaren 21ean eta abenduaren 11n
Zorionak bikote! Muxu handi bat.
Familiaren partez.



Ivan Ayora Plata
Azaroaren 30ian 20 urte. Zorionak
etxeko "txikixari". Jarraitu gure egunak
zure irribarriaz argitzen. Maite zaitugul!
Etxekuk & Madrid aldekuak



Miguel Angel eta Iker Fernandez
Azaroaren 6an eta 3an 47 eta 7 urte
Zorionak bikote!
Amamaren partez.

Urte askotarako!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak, lau bide dituzu Pil-pileanen bidez zoriontzeko:

- Whatsappa **605706086** zenbakira.
- Mezua **aldizkaria@pilpilean.com** helbidera.
- Webguneko **www.plaentxia.eus/zerbitzuak/zorion-agurrak** helbidean sartu.
- Lokalera ekarri 10.30etik 13:00etara bitartean.


Jaioberriak



Julia Ayastuy Cabezas
Azaroaren 5ean jaio zen Mendaroko
ospitalean.



Malen Castillo Elizburu
Urriaren 29an jaio zen Arrasateko
ospitalean.



Sara Muñoz Iñurrieta
Azaroaren 3an jaio zen Mendaroko
ospitalean.



Ainara Gabriela Rosario Moreno
Azaroaren 10ean jaio zen Donostian.



Iara Blanco Rodriguez
Azaroaren 16an jaio zen Mendaron.

Ondo etorri!

Jaioberriei ongietorria emateko zabaldu dugu atal hau aldizkarian. Hemendik aurrera Udaletxean jaiotzaren inskripzioa egitera doazenean gurasoek adierazi ahalko dute aldizkarian argazkia agertzea nahi duten. Aldizkaria kontaktuan jarriko da baiezkoa ematen dutenekin.

Jaiotakoak eta hildakoak



KLB6
Kupoi hau moztuta deskontua dendan

KLB6
Sara jantziak

AURREZTU ENERGIA

Berotu ebela
BIOMASA ETA
EGURREZKO
galdarekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



Iturria: Arantza Larrañaga.

Arangureneko langileak

1915ean Aranguren lantegiko langileei ateratako argazkia. Garai hartako beste lantegi askok bezala, armagintzan jarduten zuen, hamarkada batzuk beranduago torlojugintzara aldatu zirenera arte. Lantegia herriaren erdigunean zegoen, orduan ohiko zen moduan, gaur egun Santa Ana kaleko 14-16.ataria dagoen lekuan.

Argazkian ageri direnak (Ezkerretik eskumara eta atzetik aurrera):

Arsenio Maiztegi, Segundo Larreategi, Gregorio Gallastegi, Andres Ezenarro, (bergararra), Luis Aranguren, "Pikutia". Ondarza "Baraterua", Antonio Goikoetxea, (bergararra), Ignazio Esnal "Azkoitti". Luis Larrea eta Ignacio Beiztegi (12 urteko mutikoa).



ANJEL IRAZABALBEITIA ALDAZABAL
1957-08-07 / 1994-11-18

*"Herri aske bat amesten zendun
katerikan etzuen,
ta herri horren alde borrokan
eskeini zenuen dena,
zuk errotako hazien fruituz
ase nahi dugu barrena,
ta garaipena izango duzu
omenaldirik onena.
Beti izango zaitxugu gure bihotzian."*

Lurdes eta sendia.



**ESKELA DOAN
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN**

OROIORE Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Ez onartu besterik gabe zure asegu-konpainiak esaten dizun hileta zerbitzua, jakin ezazu nahi duzun hileta zerbitzua aukera dezakezula beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, beilatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire helburua familiar ahalik eta tratunik beroena hurbilekoena ematea izango da.

MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA

 **EROSKI** online
zurekin

EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

eroski.es

lurraldearen
%100 -era
iristen gara



DES KON TUAK

Bizikale elkarteko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak eskaintzen dituzte hilero. Eskaintza baliagarria **abenduaren 3tik 18ra** arte.

BENITO ALTZARIAK

Egongelako altzaria (2,55 m)



590€

Lehen
650€

Deskontua
%10

Izena: _____

Tel.: _____

IÑARRA HARATEGIA

Oilasko osoa eta dozena bat arrautza



4€

Lehen
6€

Deskontua
%33

Izena: _____

Tel.: _____

ARRANO TABERNA

Urteko ardoa edo Rueda + patata
tortila pintxo



2€

Lehen
2,35€

Deskontua
%15

Izena: _____

Tel.: _____

RICO FRUTADENDA

Ganboia (20-30 ale) eta txipiroi betea



Ganboia

10,95€

Lehen
13,15€

Deskontua
%16

Txipiroiak

7,95€

Lehen
9,95€

Deskontua
%20

Izena: _____

Tel.: _____

zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

NIK,
HERRIAN

